

ASTEAZKENA

2016/10/19
4. urtea, 564. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.info
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 77 €

**«Zaharregiak
ludotekarako
eta gazteegiak
gaztetxera salto
egiteko»**

Gaztelekuak kokaleku eta
zerbitzu zabalagoa du
orain Asteasun // 7

Txirritxo txikia eta
dortoka
korrontezalea
bezalako
espezieak, Orian // 2

**«Harrotasuna eta poza
ematen dit jendearen
erantzunak»**

ANTTON IZTUETA
EUSKARA HUTSEZKO BIDEOTEKAREN SORTZAILEA

Altzoko udaletxeko goiko solairuan hamar urtez
ekoiztutako proiektu analogikoak bere jarraipena du
egun 'Anbune' kanalean; 230.000 ikustaldi ditu // 3



IMANOL GARCIA LANDA



ITZEA URKIZU

**«Gozatzeko dantza egiten dugu,
baina baita gozarazteko ere»**

XABIER ARTOLA ETA IDOIA BESADA
EUSKAL HERRIKO 40. DANTZA TXAPELDUNAK

lazko arantzatxoa atera, eta 123 puntu eskuratuz irabazi zuten, joan den larunbatean, Segurako garaipen
preziatua; lagunaren eta familiaren babesak hunkituta, lanean jarraitzeko indartsu dira // 5

**Udazkeneko egitarau
betea borobilduta;
tarteetan, Eñaut
Elorrieta eta Anari**

Larunbatean hasiera eman zitzaion kultur
eskaintzari Txintxarri Egunarekin; ondoren,
haurrentzako ipuin kontaketa, hitzaldiak eta
nazioarteko egunen ospakizunak izango dira // 4




sarrerak

Atarikideentzat
sarrera pare bat dugu

MAURIZIA
Aukeran dantza taldea
EMANALDIA

Urriak 21, ostirala • 20:30ean
Tolosako Leidorren



tolosaldeko
ataria

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak arte:**
943 65 56 95 edo www.ataria.info



GIDA BAT, LAU HIZKUNTZA



Flandriako eta Sardiniako 34 ikaslek astea pasako dute Tolosan, Laskorain ikastolarekin egindako elkartrukeari esker. Guztien artean euskaraz, ingelesez, nederlandez eta sardinieraz egongo den turismo gida bat egingo dute. «Elkartrukea bi urtetako proiektu baten barruan sartzen da, ez da bakarrik aste honetako etorrera, proiektu hau eguneroko lanean txertatzen dugu», esan du Laskoraingo Olatz Hernandezek. R.CALVO



EZBEHARRA TRENBIDEAN



Bi ezbehar izan dira eskualdeko trenbide sarean azken egunetan. Atzo, Villabona eta Zizurkil arteko tren geltokitik gertu, 70-80 urte arteko gizonezko bat hil zen trenak harra-patuta (irudian). Eta herenegun gauza bera gertatu zen Alegiako tren geltoki inguruan. Herriko 52 urteko gizonezkoa izan zen hildakoa. Bi kasuetan Ertzaintza gertatutakoa ikertzen ari da. A. URKOLA

Menpekotasuna dutenen zaintzaileei begirako ikastaroa

IBARRA // Gaurtik abenduaren 14a bitarte *Erlaxazio teknikak: estresa bota eta lasaitasuna bilatu* ikastaroa eskainiko dute, kiroldegian. Menpekotasuna duten pertsonak zaintzen dituztenei zuzendutako ikastaroa da eta doakoa da. Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailak eta Matia Fundazioak antolatu dute, elkarlanean. Parte hartzeko 943 67 04 15 zenbakira deitu behar da. Bi orduko sei saio egingo dituzte.

Salva Vallejo Gilen argazkia, Tolosako egutegiko azalean

TOLOSA // 2017ko egutegia osatu dute jada. Tolosako komertzioak da datorren urteko egutegiak duen gaia eta irudiak aukeratzeko Tolosan Klisk lehiaketa egin dute, urteroko moduan. Azaleko argazkia Salva Vallejo Gilen *Vinos y conservas* izango da eta azala izateko ohorea eskuratzeko az gain 500 euro jasoko ditu. Egutegiko gainontzeko argazkien egileek 100 euro jasoko dituzte. 153 argazki jaso zituzten.

Mehatxupean dauden espezieak agertu dira Orian

Ibaiaren egoerak hobera egin duenez, biodibertsitatea handitu da eta txirritxo txikia edo dortoka korrontezalea ikusi dituzte bertan

Ane Urkola Tolosa

Oria ibaian azken urteetan egin diren zaintza politika egokien ondorioz, biodibertsitatea handitu da eta espezie berriak azaldu dira. Horren berri emateko eskainitako prentsaurrekoan esan zuten, espezie horiek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako espezie mehatxatuen katalogoan kaltebera mailan daude, hau da, galtzear dauden espezieak dira. Txirritxo txikia, ugalde enarra eta dortoka korrontezalea dira agertu direnetako batzuk. Ez dira espezie ohikoak, eta txirri-

txo txikiak, esaterako, Tolosako legartzetan kumatu duela esan dute.

IBAIA, GUZTION ARDURA

Oriak azken hamarkadan sekulako aldaketa izan du. «Horrek ahalbidetu du Oria ibaiaren biodibertsitatea handitzea», azpimarratu zuen Patxi Amantegi Tolosako Ingurumen zinegotziak. Alberto Luengo Txingudi Plaiaundiko langileak bere alde-tik, espezie horiek agertu izana zaintza politika onen eta ibaia egoera onean egotearen ondorioa dela esan zuen. Dena den,

anbizio gehiago behar dela nabarmendu zuen: «Beste pauso bat eman behar dugu, eta gutxienez, bermatu behar dugu urteetan honek horrela jarraitzea». Izan ere, Asier Manso Eguzkiko kideak adierazi zuenez, oraindik zikinkeria ugari dago: trafiko seinaleak eta plastiko zatiak, kasu.

Amantegik, zentzu honetan, adierazi zuen herritar guztien eta administrazioaren ardura dela biodibertsitate «aberats» hori babestea: «Espezie horien

bizilekua zaindu egin behar da». Era berean, azaldu zuen ibaia garbitzearen eta bizitza sunsitzearen arteko aldea. «Gauza bat da gizakiak botatako zikinkeria kentzea eta landare inbaditzaileak kentzea. Berez sortzen den bertako landaretza ere kentzen badugu, ez gara garbitzen ari, bizitza kentzen baizik».

Era berean, Eguzki talde ekologistako kideek Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu diote eremua babestea txirritxo txikia kumatzen den garaian, eta antza zaindari bat jarriko dute.

Asier Manso Eguzkiko kidearen iritziz, espezie hori apiriletik abuztura arte egoten da Oria ibaian, eta bi aldiz kumatzen du. «Epe batean arrantzaleei sartzen uzten ez badiegu, baina kumatu ondoren sartzen badira, bigarren kumaketa arriskuan jar dezakegu», nabarmendu zuen.

Asteasuko egutegia egiteko lehiaketa, abian

ASTEASU // Datorren urteko egutegia osatzeko argazki lehiaketa antolatu dute Asteasun. Lanak azaroaren 4a baino lehen aurkeztu beharko dira udaletxean edo kultur etxean. Asteasuko txokoak edo ikuspuntu desberdinak erakutsi behar dira eta pertsona bakoitzak 20 argazki aurkeztu ahal ditu. Parte hartzaileen artean hiru afari zozkatuko dituzte.

Baratzeko produktuak erosteko aukera, ostiralero

ZIZURKIL // Ostiralero Zimiterio inguruan baratzeko produktuak erosteko aukera egongo da. Etzi izango da postua jartzen duteneko lehen aldia. Aitor Sarasua nekazaritza zinegotziak esan duenez, «udalak azoka baten asmoa buruan darabil, baina lehenago beheko plazako estalpea egin nahi dugu. Aurrekontu faltagatik ari gara atzeratzen. Bien bitartean, udaletik ez diegu trabarik jarriko horrelako ekimenei».



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Luengo, Manso eta Amantegi mahaian, eta Muñoz azalpenak ematen. AU.

«'Anbune' kanaleko ikustaldiek erakusten dute beharra zegoela»

ANTTON IZTUETA EUSKARA HUTSEZKO BIDEOTEKAREN SORTZAILEA

Ikus-entzunezkoak eta bideogintza gustuko ditu Iztuetak. Bere zaletasuna baliatu zuen euskarazko bideoteka analogikoa sortzeko, eta egun digitalizazioaren garaia baliatzen du bideoak munduratzeko

Imanol Garcia Landa Altzo

Altzoko udaletxeko goiko solairuan, lehen liburutegia zegoen lekuan, hamar urte inguruz proiektu bat eraman zuen aurrera Antton Iztuetak: Herriarteko Euskara Hutsezko Udal Bideoteka Zerbitzua. Bere bidea egin zuen proiektu horrek modu analogikoan, eta orain, bideo haietako zenbaitetatik abiatuta *Anbune* izeneko kanala sortu du Iztuetak Youtuben.

Nola sortu zen bideoteka zerbitzua martxan jartzeko ideia?

Irakaskuntzan nenbilen Goierrri aldean. Sei hilabeterako liberatu ninduten ikus-entzunezko arloa lantzeko, hau da, bideoak eta irratia. Orduan hasi nintzen zenbait programa grabatzen telebistatik ikasleentzako. Eta handik bururatu zitzaidan, eskolan hori eginez gero, zergatik ez egin kultur etxe batean edo udaleko areto batean. Hortik tiraka hasi eta proiektua landu nuen, eta hasi nintzen Tolosaldeko udaletan azaltzen. Euskara hutsezko bideoteka bat sortzea zen asmoa. Herri askotan eraikin berriak egiten ari ziren, kultur etxe bezala erabiltzeko, eta barrua hornitzen ari ziren telebista eta bideo gailuekin. Orduan VHS zen formatua, eta horietan sartzeko euskarazko materiala apenas zegoen. Altzoko Udalak areto huts bat utzi zidan udaletxeko ganbaran proiektua martxan jartzeko. Hutsa zegoen eta zerotik hasi behar zen. Hamabost bat udalek jarri zuten dirua, bakoitzak bere biztanleen arabera.

Zer bideo mota bildu zenituen proiektuan?

Gailu eta telebistaz hornitu behar izan zen lekua, eta ETBko programazioari begira ia erabat

hasi nintzen grabatzen. Sei bat atal hartu nituen kontuan: pelikulak, dokumentalak, bertsolaritza, marrazki bizidunak, eta bestelakoak. 1989an hasi nintzen eta urtebetez egon nintzen Altzoko Udalak finantzatuta. Gero proiektua 1990ean martxan jarri zen eta hamar bat urte egon nintzen. Nire lan profesionalatik aparte, arratsaldetan eta asteburuetan gelan sartu eta grabaketak egin, katalogoak egin, etiketak jarri... Ez dakit zenbat egongo diren zehazki, baina 500 edo 600 bideo izango dira.

Gero ordenagailuaren garaia iritsi zen eta horrek jan zion VHSri lekua. Pixkana uzten joan nintzen. Ordurako pixka bat ere nekatuta nengoen, noski.

Material gehiena ETBtik lor-tzen zenuen?

Eusko Jaurilaritzak komertzializatutako euskarazko bideoak erosten ziren, baina ez ziren asko. Hemen dagoen material gehiena ETBtik grabatua da. Esango genuke kopia piratak egitea izan zela, baina garai hartan ez zegoen ezer kultur etxetara eramateko. Behin materiala pilatzen hasi zenean, udaletako ordezkariak bideoak eramaten hasi ziren euren herrietara emandialdiak egiteko. Horixe zen azkenean helburua: materiala hartu eta beste herrietara eramatea. **Estudio txiki bat dago oraindik, grabaketak eta egiteko udaletxean.**

Ez naiz oso aditua gai hauetan; esperientziarekin ikasi egiten duzu. Muntaiak egiteko gailuak badaude, orain zaharkituak geratu direnak, eta horiekin funtzionatzen genuen. Ez genuen besterik, eta dena analogikoan egiten genuen.

Bilduma hori hor dago, VHS formatuan, eta digitalizazioa-


rekin beste pauso bat ematea pentsatu zenuen.

Orain bi urte edo, erretiroa hartu nuen, eta ikusita material hau guztia hemen zegoela, buruari buelta batzuk eman nizekion. Ez nuen sartu nahi berriz beste hamar urteko lan batean, baina beti gustatu izan zait irudia eta bideoa. Eta bururatu zitzaidan zenbait gauza digitalizatzen hasi nintekeela. Kantaldiekin hasi nintzen: kontzertu osoak zeuden grabatuta VHSean. Kontzertuak kantuz kantu banatu nituen eta hortik etorri zen Youtuben kanala bat sortu eta horra igotzearen ideia.

Hasiera batean pentsatu nuen material hau guztia erakundere bati ematea, *Berria*-ri adibidez. Baina ETBtik grabatuta izanik, ez zitzairen egokia iruditzen materiala erabiltzea. Orduan pentsatu nuen neronek egitea, eta *Anbune* izeneko kanala sortu nuen Youtuben. Urtebete pasa sortu nuen eta dagoeneko 300 bideotik gora igota ditut. Pixka bat harrituta nago nolako harre-ra izan duen ikusita, ez baitut erabili sare sozialik hau zabaltzeko, WhatsApp-a bakarrik. Tarte honetan 230.000 ikustaldi inguru izan dituzte bideoek. Niretzako horrek adierazten du beharra bazegoela, edo behintzat nire aldetik zerbitzu interesgarri bat ematen ari naizela.

Bilduta dagoen material guztia digitalizatzea da asmoa?

Ez, hori ez da asmoa, bestela beste hamar urte pasako nituen honenkin. Abestiei dagokionez, bildutako material guztia digitalizatuta dago eta erdia baino gehiago Youtubera igota dago. Beraz, oraindik beste material dezente dago igotzeko. Eta hori igotzen joango naiz poliki-poliki. **Beste atalik jorratu duzu?**



I.G.L.

Pentsatu nuen abesti hauekin batera beste gai batzuk ere digitalizatzea. Horrela, herri kirolekin hasi naiz, batez ere aizkora eta harri-jasotzea. Horiek ere joango naiz igotzen Youtubera. Egun egiten diren apustuak-eta, ez denak noski, zuzenean grabatu ditut eta horiek ere igotzen ari naiz. Eta ikusten da kantuen aldamenean harrera badutela. Euskal Herria txikia da, ez dakit zenbat milaka euskaldun ibiliko diren Interneten, baina ikustaldiak izugarriak dira eta astero igotzen doaz.

Bestalde, bertsolaririk gabeko bertso-bazkari eta afariak dinamizatzen ibili izan naiz hainbat urtetan. Ikus-entzunezko bat jartzen zen eta jendeak pantailan ikusten ziren letrekin eta irudiei jarraituz kantatzen zuen. Pentsatu dut material hori guztia bideo bihurtu eta Youtuben jartzea, nahi duenarentzat eskuragarri.

Zuk sortutako bideoak ere igotzen ari zara kanalera.

Begi ninietan atximurka izeneko atala sortu dut. Irteerak egiten ditugu lagunartean, eta tarteka grabatu egiten ditut gizakiak edo naturak egindakoak. Horietako bat da zubiekin egindako bideoa. Atal honetan nire helburua da idazle baten konplizitatea bilatzea. Beraz, nik egindako bideo horiek eskaini nahi dizkiot idazle ez hain ezagunei. Gogoeta bat egin dezan eta testu motz bat

idatzi eta gero elkarrekin grabatu dezagun hori. Zubien ingurukoa Kike Amonarrizekin osatu dut. Berak jarri du testua eta ahotza ere bai. Nire asmoa bideo horiek institutuei eskaintzea da, euren eskola material bezala edota idazmena lantzen dutenean erabiltzeko.

Bai analogikoan aritu zinenean, eta orain digitalera eta Internetera pausoa egiterakoan, material guztia euskaraz da.

Bai, material dena euskaraz dago. Gaur egungo aurrerapen teknologikoek ere ematen dute aukera horrelako gauzak egin eta elkarbanatzeko. Nire asmoa ez da dirurik irabaztea, baizik material hau jendearen esku jartzea. Garai bateko gure kultura eta historiaren espresio garrantzitsuak izan diren kantagintza eta bertsolaritza, adibidez, jendearen esku ipintzea eta gozatzea.

Gustura zaude, beraz, Youtubeko 'Anbune' kanalak hartu duen bidearekin.

Poza ematen dit, eta harrotasun puntu bat ere bai. Jendeak gustura hartu du, beharra du, eta ikustaldien kopurua igotzen doala da horren erakusle. Bere garaian egindako lanak balio izan zuen, eta gaur egungo garai digitalean erabilera gehiago izaten ari da. Baditut buruan egitasmo gehiago, eta denborarekin eta ondo bagaude, egingo ditugu. Geldirik egoteko asmorik ez dut, behintzat.

Musikak protagonismo berezia du udazkenean

Aurreko larunbatean izan zen Txintxarri Egunarekin eman zaio hasiera udazkeneko egitarauari

Imanol Garcia Landa Alegia

Musika izaten ari da eta izango da protagonista Alegiako Kultur Batzordeak antolatu duen udazkeneko egitarauan. Txintxarri Egunarekin eman zaio egitarauari hasiera larunbatean, Txintxarri, Txintxarri Txiki eta Castilla Vieja abesbatzek eman dako kontzertuarekin. Musikari lotutako ekitaldiekin jarraituz, Eñaut Elorrieta eta Anariren kontzertuak izango dira, eta Loatzoko musika eskolako ikasleen emanaldia.

Bestalde, bi ipuin kontaketa saio izango dira. Horietako bat gaur bertan, Maite Frankorekin, eta bestea Ines Bengoaren eskutik, azaroan. Elkarretaratzea antolatu dute, urtero legez, azaroaren 25ean, emakumeenganako indarkeria salatzeke. Horrez gain, gurasoei zuzendutako ikastaroa egingo da, hiru saioetako. Euskararen Egunean, abenduaren 3a, tailerra eta hamaiketako izango da.

Eñaut Elorrietaren kontzerturako sarrerak salgai daude kultur etxean, 10 eurotan. «Mikel Urdangarin etorri zenean erantzun ona izan zuen kontzertuak, eta espero dugu ere larunbatean zinema aretoa bete izatea», esan du Nati Murua Kultura zinegotziak.

Larunbateko Txintxarri Eguneko emanaldiarekin aho zapore gozoarekin geratu ziren entzuleak. Herriko bi abesbatzen doi-



Txintxarri eta Castilla Vieja koruak batera abesten, larunbatean. TXUSO GOMEZ

UDAZKENEKO EGITARAU

Urriak 19, gaur

17:00. Ipuin kontaketa, Maite Francoren eskutik, liburutegian. 4-7 urte bitarteko haurrei zuzendutako izango da saioa.

Urriak 22, larunbata

23:00. Eñaut Elorrietaren kontzertua, zinema aretoan.

Azaroak 16, asteazkena

17:00. Ipuin kontaketa saioa, Ines Bengoaren eskutik, liburutegian. 4-7 urte bitarteko haurrei zuzendutako emanaldia izango da.

Azaroak 22, asteartea

18:00. Loatzoko musika eskolaren kalejira eta emanaldia. Plazatik abiatuko dira musikariak.

nuez gain, Palentziako abesbatza baten musikaz gozatzeko aukera izan zuten entzuleek. Hain justu, Castilla Vieja abesbatza izan zen larunbateko protagonista. Hogeita bost bat lagunez osatutako taldeak maila ona erakutsi zuen Alegiako elizan. Musika landua eta gustu handiz abestutakoa, gainera. Gaztelako kul-

Azaroak 25, ostirala

19:00. Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunean, elkarretaratzea egingo dute plazan.

Azaroak 30, asteazkena

17:30-19:00. *Komunikazioa eta gatzak konponketa* ikastaroa, Baikara elkarrearen eskutik, gurasoentzat, kultur etxean. Beste bi saio egingo dira: abenduak 7 eta 14.

Abenduak 2, ostirala

22:00. Anariren kontzertua, gaztetxean.

Abenduak 3, larunbata

Euskararen Egunean harira, Larreta esnekiek eskainitako tailerra plazan. Ondoren hamaiketakoa.

tura eta bizimodua jasotzen dituzten obrak entzun ahal izan ziren. Ondoren, bi abesbatzek opariak egin zizkieten elkarri. Afarilegia ere egin zuten Alegiako Txintxarri jatetxean, eta bertan, lehen urratsak eman zituzten alegiarrek Dueñasera egin behar duten itzulerako bisita prestatzeko.

«Bakarka aritzeak aukera ematen du jendearekin lotura hurbilagokoa izateko»

EÑAUT ELORRIETA MUSIKARIA

Lehenengo aldiz eskainiko du Alegian kontzertu bat Eñaut Elorrietak. Zinema aretoan izango da emanaldia, larunbatean, 23:00etan.

Zer emanaldi mota izango da eskainiko duzuna?

Kontzertu biluzia izango da. Kantuak joko ditut sortu nituen bezala, gitarra soilez lagunduta. Gustatzen zait esperientzia. Era biluzi horretan beste ñabardura eta sonoritate bat hartzen du abestiak eta asko disfrutatzen dut. Gustatzen zait noizbehinka bakarka aritzea; horrela kantatzeak aberasten nau.

Mikel Urdangarin izan da orain gutxi Alegian, eta bakarka aritzean oso ezberdina zela zioen, besteak beste bere gitarra gehiago entzuten zuela.

Egia da. Lokalean lan egiten dudanean batez ere gitarrarekin konposatzen eta sortzen oso ohituta nago, baina egia da agertoki batean gehiagotan egon naizela lagunduta. Aldi berean egia da sentimendu kontrajarriak izaten direla. Batetik bakartiago, biluziago sentitzen zara; ahotsa eta gitarra dira, eta une horretan dagoen dena egiten ari zara. Baina, bestalde, oso indartsu sentitzen zara. Bi sentimenduak daude, eta oso bizia izaten da nire kasuan, eta asko gustatzen zait.

Zer abesti entzun ahalko dira emanaldian?

Joko ditut nire ibilbidean bai Ken Zazpiren eta bai bakarka sortu ditudan hainbat kantu. Aukeratu ditut beraien artean lotura bat egoteko, istorio txiki bat egoteko, eta istorio txikiek istorio handiak sortu ditzaten.

Bakarkako emanaldietan, abestitik abestira musikariet normalean gehiago hitz egingo dute entzuleekin.

Kontzertuak hurbilagoak izaten dira, eta biluztasun horrek ematen du aukera jendearekin lotura hurbilagokoa izateko, eta kasu batzuetan sendoagoa ere bai. Horrek ematen du aukera kantuak gehiago esplikatzeke, giro



LANDER GARRO

lasaiago bat hedatzen delako. Kantutik kantura erlaxatuagoa izaten da tarteak. Kontzertu arrunt batean, dena neurtuagoa doa, jende asko gaude agertoki gainean eta baditugu pauta batzuk, eta erritmoa bera, kantutik kanturako tarteak bera ere, neurtua izaten da kasu askotan. Bakarkakoan erritmo hori unean sentitzen dena izaten da gehiago, eta emanaldia hurbilagoa sentitzeak lasaiago joateko beta pixka bat ematen du. Jendearekin hitzez ere komunikazioa errazten du horrek, eta kantuen gorabehera pixka bat gehiago sakontzeko.

Giroa ere ezberdina izango da entzuleen aldetik, Ken Zazpiren kontzertu batekin alderatuz, esaterako.

Giroa lasaiagoa izango da intentsitate aldetik. Edozein formatutan, jendea gustura badago eta komunikazio hori ematen baldin bada, igartzen duzu. Jendearekin ez dagoenean horrelako komunikazioa, sentimenduak ez zaizkizu horren alde etortzen eta gehiago borrokatu behar izaten da. Jendea irekita datorrenean, eta entzutera gustura datorrenean, zurekin sentitzen dituzunean, norberak ere kontzertu hobe ematen du. Hori da kontzertuetako magia eta nire aldetik dena emango dut hori horrela gerta dadin.

Mauka
berria



ERABILTZEKO EPEA: 2016ko azaroaren 20ra arte

ROXARIO JATETXEA

Menu berezi batez gozatu Roxario jatetxean

- Eguneko pintxo eta sagardoa txotxetik.
- Roxario bakailao tortilla.
- Legatza labean piper berde olio errearekin.
- Behi zahararen txuleta berezia letxuga entsaladarekin.
- Etxeko flana, labean prestatutako melokotoiarekin.
- Urteko ardo beltza, Errioxa Jatorri Deitura.
- Sagardoa, txotxetik edo botila bat...

Eskaera egiteko: www.mauka.eus

29,50€

eskaintza berezia

ASTIGARRAGA - GIPUZKOA

«Garaipena ez dugu guk bakarrik lortu, berak lortu du gurekin batera»

XABIER ARTOLA ETA IDOIA BESADA EUSKAL HERRIKO 40. DANTZA TXAPELDUNAK

Astez asteko lanean, bien jaioterrien arteko distantzia ezerezera mugatzen dute, dantzarako duten grinarekin; grinak eta izerdiak jantzi die, aurten, txapela preziatua

Itzea Urkizu Arsuaga

Xabi eta Idoia, jo zazue goia! Esan eta egin. Dantza taldeko lagunek behin eta berriro errepikatutako leloari jarraitu, eta Euskal Herriko 40. dantza txapelketa irabazi zuten, joan den larunbatean, Xabier Artolak (Irura, 1996) eta Idoia Besadak (Pasaia, 1993). Paradoxa dirudi, baina sueltoak elkartu zituen eta, orduz geroztik bi urte ere pasatu ez diren arren, bizipen zerrenda luzea idatzi dute jada, fandango eta arin-arinen erritmora. Zalantzarik ez da: Segurako garaipena lumarik finena izan da, elkarrekin hasi zuten historia idazten jarraitzeko.

Egun batzuk pasatu dira. Sines-tenalduzue?

Idoia Besada. Kosta egiten da sinestea helburua lortu dugula.

Xabier Artola. Gainera, gaur joan den osteguneko dantzari berberak izaten jarraitzen dugu, eta titulu hori da aldaketa bakarra. Lorpen handia da, bai, baina badira titulu-rik gabeko dantzari oso onak ere.

Iaz ez zen puntura iritsi zuen eta txapeldunen arteko tartea. Aurten kolpea eman, eta lau puntuko aldeaz irabazi duzue. Arantza ateratzek poza bikoiztu duzue?

X. A. Uste dut joan den urtean ez irabazi izanak indarra eman zigula lanean jarraitu eta hobetzeko.

I. B. Lortu dugu nahi genuena, baina iaz ere pozik geratu ginen; gure lehen urtea zen, eta bigarren postua eskuratu genuen. Hori ez da batere erraza.

Zenbat txapelketatan aritu zarete bi denboralditan?

X. A. Aurten batzuk bertan behera geratu dira edo ez dituzte antolatu, eta gutxi xixago izan dira. Iaz 10 irabazi genituen, eta sei aldiz bigarren izan ginen, Seguran barne.

I. B. Aurten bost irabazi ditugula esango nuke.
**Zuk, Idoia, aurretik ere bazene-
kien Euskal Herrikoa bi aldiz irabaztea zer zen. Sentipenak desberdinak dira aldiro?**

I. B. Erabat. Gainera, une horretan sentitzen duzuna ahaztu egiten da, ez dakit nola azaldu. Garaipen bakoitzak urte osoko lana du atzetik, eta desberdina da. Egia da lehenengo garaipena, lehenegoa izateagatik, beti dela bereziagoa, baina aurtengo sentsazioa sekulakoa izan da. **Oso hunkituta zeunden.**

I. B. Bai, inoiz baino gehiago, eta afizioagatik izan zen. Sekula ez dut horrelako afiziorik izan, eta Udaberri duena ikaragarria da. Horrelako publiko bat izateak momentuari intentsitate handiagoa ematen dio, eta dantzan ari zarela oihuak entzuteak jarraitzeko indarra ematen du.

Zuretzat, aldiz, lehen aldian izan da, Xabi. Titulu bat besterik ez dela diozu, baina, nolabaiteko ametsa da?

X. A. Izan liteke, baina ni ez naiz sekula txapelketetan aritu izan. Idoiak ia bizitza osoa darama, eta amets hori izatea ulertzekoa da. Baina ni iaz hasi nintzen, bi denboraldi baino ez ditut egin eta, ordura



I. URKIZU

arte ere, neure buruari ez nion sekula proposatu Euskal Herriko txapelduna izatea. Bat-batean txapelketetan hasteko aukera suertatu eta, garaipenengatik baino, ikasteagatik hasi nintzen. Pilo bat ikasi dut, asko, eta dantzari moduan hobetzeko sekulako aukera izan da. Baina, noski, ez nuen uste gauzak hain ondo joango zirenik! Nork esango zidan? [barreak]

Nolatan elkartu zenituzten Irura eta Pasaia, bikotea osatzeko?

X. A. [Jose Luis] Vallejorekin hitz egin nuen, eta Izar Etxeberriarekin

«Gaur joan den osteguneko dantzari berberak gara, eta titulu hori da aldaketa bakarra»

hastea proposatu zidan, baina ez zen posible izan. Orduan, Idoia Besada izan zitekeela esan zidan Vallejok, eta sekulakoa izan zen: bi aldiz txapeldun izandako bat, presioa galanta! Egia esan, sueltoa jarraitzen hasi nintzen z geroztik, Idoia erreferentzia bat zen niretzat, bai bere lorpenengatik, eta baita noizbait Udaberrira erakustera etorri izan zelako ere. Erronka handia izan zen niretzat berarekin dantzan hastea.

I. B. Gogoan dut Vallejok nola deitu zidan, Urtezahar egunean. Hasieran beldurra sentitu nuen, zerotik haste bat zelako. Baina uste dut sueltoa ezin dudala utzi, eta zera pentsatu nuen: «Zergatik ez?». Maiatzean lehen txapelketara aurkeztu eta irabaztea sinestezina izan zen. Honaino iritsi gara, Xabi oso dantzari ona delako; primeran egokitu da sueltora. Oso ondo konpon-tzen gara, eta hori oso garrantzitsua da.

X. A. Ez, bion lana dago emaitzetan. Altuerak ere zerikusia du, bikote simetrikoa osatzen dugulako. Estilo propio bat lortu dugu, nolabait.

I. B. Gure indargunea hanketan zegoela ikusita, horri etekina atera nahi izan genion. Beraz, salto egiten hasi ginen, eta uste dut arin dantza egitea gure bereizgarria dela. Dena den, Seguran zenbait ikusle hunkitu genituela esan digute, eta hori da garrantzitsuena: gozatzeko dantza egiten dugu, baina baita gozarazteko ere. Hemendik atera dezakedan onena da hori.

Zein da horra iristeko sekretua?

X. A. Giltza bakarra entseguak dira, argi dago. Konpromisoa hartu behar da norbere buruarekin eta bikotearekin, lehian sartzen zaren unean helburu batzuk dituzulako.

I. B. Eta beti ateratzen dugu tarte

bat entseguetarako, dantza baita gure ihesbidea.

**Nolakoa da dantzari batean as-
tea, Segurako hitzorduaren ata-
rian?**

I. B. Uf! Oso txarra, batez ere, urduritasunagatik. Dena den, azken as-
tean erabat entseguetan aritzeak ez du ezertarako balio, lana aurretik egin behar da. Presiorik handiena minagatik izaten da, denboraldi amaiera denez, gorputzeko lesio guztiak pilatzen baitira.

X. A. Azken hilabetean hauspoa lantzen dugu gehien, pausoei ere egurra ematen diegulako. Hala ere, larunbatean pozik jaiki nintzen, sentsazio onekin, eta nire buruari ez nion iazko presiorik egin, Seguran edozer gerta baitaiteke. Aurten beste modu batera hartu dut guztia, eta gozatu egin dut dantzan.

**Aurkezleek mikrofonoa pasatu eta biok pertsona berarekingo-
goratu zineten.**

X. A. Bai. Bera da gu bikote izatearen eta gaur Euskal Herriko txapeldunak izatearen erruduna. Bera egon ez balitz, ez genukeen ezer egingo, eta sarri ez gara konturatzen bere laguntzaren pisuaz. Vallejok akuilari lanak egiten ditu, errutina bat markatzen digu eta fisikoki prestatzen gaitu. Eta, noski, hirugarren begirada bat da egiten ari garena fintzeko.

I. B. Hasieratik egon da gurekin, eta txapelketa guztietara joaten saiatzen da. Beti izaten da laguntzeko prest, eta babes handia da guretzat; bera gabe ez genukeen saririk lortuko. Garaipena ez dugu guk bakarrik lortu, berak lortu du gurekin batera, eta, asko, asko dugu berari eskertzeko. Seguran hunkitu egin zela uste dut, eta horrek are gehiago bete gintuen.

X. A. Nik nire artean pentsatzen nuen, noizbait Seguran hitz egiteko aukera izanez gero, Vallejoren lana txalotu beharra zegoela, beraz, ez nuen momentua galdu nahi izan. Bere lanak errekonozimendua merezi du, dena musu truk egiten duelako. Inork gutxi du berak dantzagatik duen pasioa.

I. B. Eta, noski, Udaberriri eskerrak ere eman nahi dizkiogu.

X. A. Estibalitz, Zumarraga, Itziar, Donostia,... Seguran eta urte osoan jaso dugu taldeko babesa, eta hori sekulako indarra da guretzat. Eta orain, saria partekatzen duzu berarekin, momentuaz gozatu.

I. B. Eta Segurakoa hain berezia izanda, ikaragarria da afizio hori sentitzea. Gure izena esan eta guztiak zutik jarri zirenean, zapiak gora jasota... Izugarria! Udaberri ez da beste talde bat, familia bat da, kua-drilla bat. Eta adin desberdintasunak ez dira nabaritzen. Argi dago Udaberri gabe ere garaipena ez zela berdina izango.

Rebeka Calvo Ibarra

Zazpi bat urte dira Ibarako lagun talde batek, abesbatza osatzeko elkartzea erabaki zuela. Ordutik zuzendari eta partaide kopuruan gorabeherak izan dituzte, baina tinko eutsi diote abesbatzek izan ohi duten kutsu seriotik atera eta kantatzearen plazera izateari. «Berez, lagun talde bezala hasi ginen, tabernan bildu eta deia zabaltzen joan ginen, orain gauden taldea iritsi arte», esan du taldeko Axun Aranguren.

IK Kantu taldean orain, 15 lagun inguru dabilta, baina beste 10 ahots berri nahi dituzte. «Ez da inolako esperientziarik behar, ezta ahots miragarririk ere, askatasunez abestu nahi izatea eta lagunak egiteko gogoia edukitzea besterik ez da behar», gaineratu du Aranguren.

Taldeko Jose Ramon Egibarrek esan duenez, estilo librean kantatzen dute eta partaide bakoitzak gogoko dituen abestiak prestatzen dituzte. «Astean behin biltzen gara. Kantak bakoitzak proposatzen ditu eta askotariko abestiak prestatu ditugu. Normalean euskaraz kantatzen dugu, baina ingelesez, japonieraz eta afrikarrez ere abestu izan dugu», esan du Egibarrek.

LANA ETA GOGOA

Taldean dabiltzanak ez dute egin kanturako ikasketa berezirik, baina lana eginda eta laguntza pixka batekin helburuak lortzen direla diote. Zailena zer den galdetzerakoan, koruan erantzun dute: «Ahotsa igotzea eta bere lekuan jartzea». «Zuzendaria aldatuz joan gara, baina denek lagundu digute beti ahotsa ondo jartzen. Horrela joan gara ikasten. Urte hauetako garapena nabarmena da; ahotsak afinatu eta elkarren artean enpastatzen erakutsi digute eta lana eginez



Hamabost bat pertsonak osatzen dute egun, Ibarako abesbatza, baina emanaldietan kolaborazioak izaten dituzte. ATARIA

Abestea gustuko dutenentzat

IK Kantu taldean 25 partaide izatera iritsi nahi dute. Bi dira bete beharreko baldintzak; lagunak egiteko gogoia edukitzea eta askatasunez abestu nahi izatea

gero lortzen da. Gehienek ez dugu solfeorik ere», esan du beste taldekide batek, Pili Bilbaok.

Abesbatzean ez dute mugarik «kantatzera gatz» diote. «Kantu librean aritzen gara eta ondo pasatzeaz gain, solfeo pixka bat eta erritmoa ematen ikasi dugu. Ahal duguna egiten dugu eta orain arte oso ondo atera da dena. Urtero ikasturte amaierako kontzertu bat egiten dugu eta hori prestatzen dugu, baina gure asmoa emanaldi gehiago egitea da», esan du Egibarrek. «Deial-

dia zabaldu eta taldekide gehiago erakarri nahi ditugu. Horretarako egunen batean tabernetara joatea eta abestea ere pentsatu dugu. Kalera ateratzea azken finean. Guk ondo pasako dugu eta taldea ezagutzea emango dugu», azaldu du Bilbaok.

Izan ere, abesbatza «akademikoko eskema» hautsi nahi dutela esan dute behin eta berriz, eta jendea erakartzeko entsegu «dibertigarriak» egiten dituztela esan dute. «Tarteka afariak ere egiten ditugu, luzatu egiten di-

ren afariak, eta oso gustura biltzen gara», dio Aranguren.

BELDURRAK KENDU

Josexo Otxoak bere aldetik, jendea erakartzeko beldurrak eta aurreiritziak kentzeko esan du: «Jendeak uste du hona etortzeko ez dakit zein prestakuntza behar dela, baina nahikoa da gogoia edukitzea eta lan egiteko asmoz etortzea».

Orain arteko ibilbidean 80 bat abestiko errepertorioa biltzea lortu dute. Partaideek egiten di-

tuzte proposamenak eta ondoren ikusten dute zein abesti landuko dituzten eta zeintzuk utziko dituzten beste baterako. «Euskal kantu herrikoiak dira gehienak, baina ez guztiak. Proposatzen diren abesti gehienak moldatzen ditugu. Batzuetan hiruzpalau ahotsetara egiten ditugu eta ezin denean, ahots bakarrekin ere egiten ditugu. Instrumenturen baten laguntzarekin ere aritu izan gara; gitarra, pianoa, kaxoia, txistua...», azaldu dute. Umeen kantak ere egin izan dituzte eta oso dibertigarriak direla esan dute. «Bi ildo ditugu, batetik, euskal kantu herrikoiak ditugu inaugurazio eta horrelako ekitaldietan kantatzeko, eta bestetik, kanta modernoagoak ditugu, tabernaz taberna kantatu nahi ditugunak», esan du Aranguren.

IK Kantu taldean 25 kide izatera iritsi nahi dute, orain 15 bat dira, baina 22 ere izan direla gogoratu dute. «Orain arte ondo moldatu gara, 20 ahotsekin lan egitea ez da erraza, baina moldatu gara. Lehen egun hauetako entseguak ere ondo joan dira», esan du Egibarrek.

Entsegua astean behin egiten dute, baina lehenagotik etxean, abestiak landu behar izaten dituztela esan dute, «ordubeteko entsegu ezer aurreratu gabe joanez gero ez genuke ezer asko aurreratuko». «Zuzendariak ahotsak Whatsapp bidez bidaltzen dizkigu eta ahots bakoitza zein izango den esaten digu; hau polifonikoa, hau sopranoa, hau kontralto... eta etxetik kanta landuta ekartzen dugu. Letrak eta partiturak talde batean sartzen ditugu biltegi bat osatzeko».

Ondo pasatzeko eta kanturako gogoia dutenek beraz, IK Kantuko partaide izateko aukera dute 628 515 437 edo 658 721 619 telefono zenbakietara deituta edo ikabesten@gmail.com helbidera idatzita.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barneESKELAK • ataria@ataria.info • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Gaztelekua, orain, Lizardin

Asteasuko 10 eta 15 urte arteko gaztetxoek ostiral eta larunbat arratsaldeak pasatzeko aukera dute Gazteleku berrian, zerbitzua zabalik izango da 16:00etatik 20:00etara

Jon Miranda Asteasu

Lekuz aldatuta eta adin tarte zabalagoa hartuta hasi du ikasturte berria Asteasuko gaztelekuak. Pili Legarra alkatearen esanetan, «10-11 urteko umeak ez bateko eta ez besteko geratzen ziren, zaharregiak ludotekan ibiltzeko eta gazteegiak gaztetxera salto egiteko. Beraz tartea zabaltzea erabaki dugu, adin horretako umeek ere non egon eduki dezaten». 10 eta 15 urte bitarteko 140 ume daude herrian eta horietako asko gerturatu ziren, ostiralean, ikasturteko lehen saiora. 50 bat umez osatutako taldea inguratu zen Kale Nagusian kokatuta dagoen Lizardi etxera.

Aurreko ekainera arte, Asteasuko gaztelekua Elizmendin zegoen kokatuta, garai bateko eskolaren egoitzan. «Umeek komentatu ziguten, urruti egiten zitzaizela eta eguraldi txarrarekin asko etxean geratzen zirela. Lizardi etxea kultur ekimenetarako erabiltzea erabaki genuen bere garaian eta herrigunetik gertuago dagoenez gaztelekua bertara ekartzea erabaki dugu», esan du Legarrak.

LEKU BERRIAN, ASMO BERRIAK

Haur, nerabe eta gazteentzako zerbitzuak eskaintzen dituen Maindi elkarteak kudeatzen du Asteasuko gaztelekua eta lehenengo aldiz dinamizatzaileran arituko da bertako langile Garazi Jauregi. «Ilusioz hasi dugu ekimena eta denen artean, modu parte hartzailean osatzen joango gara».

Gaztelekua ireki bezperan, As-

teasuko Pello Errota ikastetxeko geletatik pasa zen Jauregi, Lizardi etxean eskainiko zutenaren berri emateko. «Goxokia jarri genien ahoan eta badirudi gustatu zaiela».

Asteasuko gaztetxoei gunea atsegin eta polita eskaintzea da helburua, «aisialdia bertan eman dezaten eta dibertitu daitezzen». Oraingoz, Lizardi etxeko lehen solairuko gelak erabilera

ezberdinetarako baliatu dituzte: billarra, ping-pong gela, futbolina eta egongela.

«Asmoa, lekuaren antolaketa, arauak, materialak eta ekintzak denen artean pentsatzea da. Horretarako astean behin batzar bat egingo dugu», esan du Jauregik. Lehen egunean dagoeneko identifikatu dituzte hutsune batzuk eta horiek zerrendatuz abiatu dute gaztelekuaren aro berria.



Gaztetxo asko gerturatu ziren ostiralean gazteleku berria. J.M.



Bideo-jokoak izaten dira gazteen artean gustukuenak. J.M.



Billarrean jolasteko baliatu zuten gaztetxoek ostiral arratsaldea J.M.



Iluntzera arte jolasean ibili ziren Asteasuko gazteak. J.M.

Euskal Jaiaren balorazio bilera egingo dute gaur

ANOETA // Aurreko urriaren 9an ospatu zuten Anoetan Euskal Jaia. Aurten, sendabelarrak eta euskal mitologia izan dituzte ardatz eta festaren inguruko balorazio bilera egiteko asmotan da batzorde antolatzailea. Gaur, asteazkena, 18:30ean bilduko dira Anoetako udaletxean. Bertaratzeko deia egin diete herritarrei.



Hezkidetza eta bertsolaritza landuko dituzte ikasleek

IRURA // Hirugarren urtez jarraian, Irurako ikastolak Hezkidetza eta bertsolaritza landuko dituzte ikasleek. Urtxintxa eskolak gidatzen du saioa eta LH5 eta LH6ko ikasleek parte hartzen dute. Horrekin batera, bigarren urtez jarraian, *Gu ere bertsotan* proiektuarekin jarraituko dute. Ane Labaka izango da irakaslea.

Teodoro Hernandorena ipuin lehiaketa abian da

ZIZURKIL // Lehiaketan parte hartu nahi dutenek lan bakoitzaren hiru kopia entregatu beharko dituzte, Zizurkilgo udal bulegoetan, azaroaren 18a baino lehen. Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo herritarrek parte hartu ahal izango dute, bost mailatan banatuta.

Ametsa Trinketeko taberna ustiatzeko jende bila dabil udala

IRURA // Udalak zerbitzua kontratatzeko prozedura berrabiarazi nahi du, kirol instalazioak zaintzea barne hartzen dituen. Zerbitzua gauzatzeko prest dauden pertsonak ezagutu eta zerbitzua zein baldintzatan gauzatuko luketen jakin nahi du udalak. Urria bukatu bitartean, interesdunek udalera jo dezakete.



ASTEAZKENA, 2016KO URRIAK 19
Argitaratzailea:
 Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Jexux Murua
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.info
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.info

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
 villabona-aiztondo@ataria.info
Anoetalea: 687 410 022.
 anoetalea@ataria.info
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.info
Alegialdea: 687 410 034.
 alegialdea@ataria.info
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.info
Bezero arretra zerbitzua: 902 82 02 01



www.ataria.info

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana, Golaiz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



'Ataria'-ren produkzioari buruzko iritzia emateko aukera egongo da datozen egunotan. N.ROLDAN DE ARANGUIZ

Bihar nolako 'Ataria' nahiko zenuke?

'Tolosaldeko Ataria' tokiko komunikabide gazteak hiru urteko ibilbidea du bere atzean, bide horretan jarraitu ahal izateko erabiltzaileen iritzia ezagutzea beharrezkoa da

Erredakzioa Tolosa

Biharko TOLOSALDEKO ATARIA nolakoa izango den erabakitzen ari da komunikabidea bera eta erabaki honetan irakurle, erabiltzaile eta entzuleen iritzia eta nahiak kontuan hartzea beharrezkoa da. Horretarako edozeinek bere iritzia plazaratzeko bidea du

www.ataria.info webgunean. Bertan zintzilikatuta dagoen galdetegi erantzuteko hiru minutu besterik ez dira behar.

WEBGUNEAN, POSTA ELEKTRONIKOZ ETA TELEFONOZ
 Egunero-egunero ATARIA-ren produktu komunikatiboak kontsumitzen dituztenek anonimotan.

tasunean eta zintzoki erantzun-go dute webguneko galdeketa baina iritzia jasotzeko bide bakarra ez da honakoa izango.

Horretaz gain, posta elektronikoz ere galdetegi ezberdinak erantzuteko gonbidapenak zabalduko dira eta zuzeneko deiak ere egingo dira datozen egunotan.

AGENDA

Deialdiak

Alegia. Ipuin kontaketa. Udazkene-ko kultur egitarauaren barruan, Maite Franco ipuin kontalaria ariko da 4-7 urte bitarteko haurrentzat. 17:00etan, liburutegian.

Larraul. Binilozko euskal diskoak, erakusketa. Larraulgo Ekomuseoan binilozko diskoak ikusgai, entzungai eta dantzagai egongo dira. Ekomuseoan, azaroaren 6ra bitarte.

Orendain. Begiradak eta isladak erakusketa. 09:00-13:00 eta 17:00-19:00. EBELeko emakume nekazarien erakusketa ikusgai egongo da kultur etxean, urriaren 21a bitarte.

Tolosa. Mr. Señora Oier Guillan idazlearen liburua. Dinamizatzailea: Yurre Ugarte. 19:00etan, kultur etxean.

Tolosa. Mikologika 2016, hitzaldia. Javier Ubillosen *El Reino Fungi* hitzaldia, Kasinoko lehen solairuan, 20:00etan.

Tolosa. Jesus Vallejoren egur lanen erakusketa. 40 urte baino gehiago egurra zizelatzen dabilen Jesus Vallejo artistaren erakusketa da. Aranburu jauregian, urriaren 29a bitarte.

Zizurkil. Marraz marra erakusketa. Lierni Mendia Villabonan jaio eta Asteasun bizi den artistaren lanak ikusgai daude, erakusketa gunean. BIC boligrafoa erabiliz eginak dira lan guztiak. Plazida Otaño liburutegian, urriaren 30a bitarte.

Tolosa. Minbiziaren aurkako, erakusketa. Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkartek antolatutako erakusketa, aec martxan 2016 ekimenaren barruan. Kultur etxean, urriaren 20a bitarte.

Tolosa. Mikologika 2016, erakusleio lehiaketa. Dendariek erakusleioak apaindu dituzte eta bezeroek gustukoena aukeratu dezakete. Urriaren 22a bitarte.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza.

Eguraldi iragarpena Iker Ibarluzearen eskutik, eskualdeko berriak, Joxemi Saizarren *Kale Kantotik*, erredakziora sartu-irtena, Tolosaldea Garatzenen atala. Idoia Apaolaza psikopedagogoa, Agustin Laskurainen errezeta eta lehiaketa, deitu 943 698038ra edo whatsapp mezua bi-

deli 687 410033ra 10:45etik 10:55era. Aste honetan zozkatzen dugun saria: sagardo kutxa.

11:00-12:00. Eutsi goiari.

Kirol albisteak.

12:00-13:00. Entzuteko Jaioak.

Musika saioa.

16:00-18:00. Zebrabidea.

18:00-20:00. Goizeko saioak utzi-tako onena.

20:00-20:30. (H)ari naizela.

Imanol Artola, *felixek*, gidatutako bertso saioa.

28 KANALA

12:30. Tripa-zorri.

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

22:00. Ur eta lur.

22:30. Nafarroa Oinez.

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

+ FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Olarreaga Aranburu, I. Korreo kalea, 2.

Telefonoa: 943 670128.

Gauekoa. Morant Barber, R.

Zabalarreta lorategiak, 1.

Telefonoa: 943 673849.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Ipar-ekialdeko haizearen laguntzari esker eguraldi polita izango dugu, hodei gutxi izango ditugu. Arratsaldean erdi eta goi mailako hodeiak izango dira, ez dute inongo ondoriorik ekarriko. Tenperatura balio altuenak 15-17 gradutan kokatuko dira. Aprobetxatzeko moduko eguraldia izango da.

Bihar. Goiza hotza izango da (6-7 gradu). Egunean zehar aitzakia gutxi, goizean behelaino puntu bat azalduko da, iluntzerako hodeiren bat edo beste azal liteke, baina orokorrean eguzkiari inongo trabarik ez diote egingo. Tenperturek beste pare bat gradutan behera egingo du (15-16 gradu).

TOLOSALDEKO ATARIA-k ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Bihar nolako **ataria** nahiko zenuke?

Lagundu erabakitzen
 3 minutu besterik ez dira

Inkesta **ataria.info** webgunean
 edo deitu: 943 65 56 95

Eskerrik asko!